

# ANAITASUNA

BIZKAIA

176 zenb. 1969, azaroak 15  
Apartado 17 \* GALDAKANO

## Durangoko Kultura Azokea

**RIKARDO  
ARREGI**

**POLITIKAREN  
ATARIAN**



R. Arregui zanak egin eta LUR editorial etxeak argitaratutako liburuaren azala. Durangon, Euskal Liburu ta Diskoen azokan, agortua ta barriro imprentatzera bidaldua.

koagoak baitziran\*: lana, jatekoa, bizitzea, eta abar. Gizarte baten, erri baten, jakintzeak ezin leike aurrrera egin, gizarte edo erri horrek beste ardura beharrezkoago batzuek baditu.

Baina, zorionez, larritasun aldi horreek joan jakuz, eta ebagitako landareari orri barriak urtetan asi jakoz: hor idazle ta olerkari barriak, han abeslari ta dantzariak, hemen alkarte barriak, eta abar.

Honeen artean agertzen jaku "Ge-

rediaga", Durango eskualdeko\* jakintza aberastasunak zaindu ta eurrei bizi barria emoteko sortu dan alkartea. Alkarte hau izan zan, Euskalerrian lehenengoz, orain lau urte, euskal disko ta liburuaren azokea antolatu\* ebana. Ekintza hau oso onartua izan zan; eta ordutik hona, bide horrerri jarraituaz, beste toki batzuetan bere ugaritu egin dira holako azokak. Baina inon ez dabe izan Durangon besteko arrera ta indarrik.

Azoka honeek jakintzearen neurtzaille bezala\* artu ezkerro, jakintza gose bat ikusten da, bete ezin izan dan jakintza zaletasun bat, euskal liburuak ez baitira\* edonon aukeran aurkitzen. Horregaitik, azokak oso atsegin jakuz, liburuaren merkatua ugarituaz gainera, jendeari modurik egokienean euskal kulturea eskaintzen\* jakolako.

Azoka honeek ugaritu beharra dago. Beste aldetik, etxe argitaratzaileak ahalegina egin beharko dabe, idazleen lanak argitaratu emoten, eta eskritoreek gai erriko ta sakonak erabilten, erriak irakurteko gosea eta gose hori asetzeko modua euki daian, eta holan erri jakintzu bat izan daiten.

Joan Antonio Aroma

Euskalerriko jakintzeari gaur egunean begiratzen asi ezkerro, amaseigarren mendean\* Etxepare olerkariak euskerazko lehenengo liburuaren idatzitako itzak datorkidaz beti burura. Euskaldunok ez dogu ezagutzen euskal jakintzea, ez doguz ezagutzen gure idazleen lanak, gure olerkariarenak, gure margolariarenak, eta abar. Penagarria benetan, baina holantxe da. Norena errua?

Gizarte guztiak bezala\*, geuk bere euki genduan berbizite bat, Urre Aro bat, emeretzigarren mendean\* eta ogeigarrenaren lehenengo urteetan. Baina gerrea etorri zan, eta ebagi egin euskun berbizite hori.

Gerra ostean, nahikoa zan bizirik irautea, ez egoan jakintzarako astirik, beste gauza batzuek beharrez-

**Bilbo**

**BEGOÑA ABAITUA**

Begoña Abaitua, 28 urteko neska lirain bat dogu, bilbotarra bera ta euskalduna.

Aparteko abotsa dauka, ta Bizkaiko Konserbatorioan egin zituan musikako lehenengo ikaskizunak. "Txinpartak" taldean be, urte askotan lan egin eban, gure teatroa ta abestiak zabaltzen.

Orain, Munich-era joan jaku, bertako Musika Eskola Nagusian bere ikaskizunak amaitzeko. Horretarako, Bizkaiko Diputazioak 50.000 pesetako beka bat eskaini\* deutso, kontuan arturik, 1964-an Llangollen-en Lehenengo Saria irabazi ebal, eta baita Bilbon bere "Premio Ibáñez de Betolaza", beste sari askoren artean.

**"ANAITASUNA" MUGAZ HANDIKO EUSKALERRIAN**

Hona hemen zer dinoan gure aldizkariari buruz Camblong idazleak, Baionako "Herria" astekarian\*:

"Bizkaitarrak barriro asi dira argitaratzen euren amabosteroko ANAITASUNA. Izen ederra! Zenbait denboran isilik egon da, diru eskaszez. Bizkai aberatsean, euskerearentzat diru eskasa!

ANAITASUNA-k errotik jokutzen dau batasunaren alde, Euskaltzaindiak eskatu dauan bezala."

Gero PRINCIPE DE VIANA ta ZERUKO ARGIA aipatzen\* ditu. Azkenez, euskal kazeta\* guztiei batasunaren bidean abiatzeko eskatzen deutse, "Euskera bat, Euskalerrri bat" euki daigun, dei eginaz.

*Bekelarre*

**EUSKAL KANTARIAK**

Elgoibarko *Lurgabe* irukoteak, laster argitaratuko dau bere lehenengo diskoa.

*Ameslariak* Madrilen izan dira, beste disko bat ateratzen.

Eubako *Ibaiak* eta Orominoko *Epertargiak* euren letrak Madrileren bidaldu ditue, diskoa ateratzeko behar diran baimenak eskatuaz.

Bittor Egurrola, bere bigarren diskoa gertatzen dabil.

Estitxuk, gabon kantakaz osoturiko disko bat preparatzen diardu.

A. Songer-ek, laster batean, disko txiki bi grabatuko ditu euskeraz.

Pasatu dan udako abestirik entzunena ta ospetsuena, *Urretxindorren* "NESKA ZAHARRAK" izan da.

Urrilaren gehien saldu diran diskoak, eta gehienetik gutxienera, honek izan dira: *Urretxindorren* "AURRESKU", *Erlak* bikotearen "AMONATXO", Xabier Leteren "URRILAREN 28 EGUN", Benito Lertxundiren "GAZTE SENTIMENTAL".

*Juan Manuel Ares*

**A. ZUBIKARAI, SARITUA**

"*Toribio Alzaga*" izeneko antzerki sari-ketea, urte birik behin izaten da, Bizkaiko Aurrezki Kutxeak jartzen dauan diruaz Euskaltzaindiak antolatua\*. Aurten, lau lan presentatu dira; eta aho batez erabagi da, Agustín Zubikarai ondarroatarrak egin-dako "*Mendu zarrak*" izeneko antzerkiari lehenengo saria emotea. Beioakioz Zubikarai jaunari gure zorionak.

Mahaiburua osotu dabenak: P. Larzabal, J. A. Arkotxa, P. Berrondo eta I. Beobide Euskaltzaindikoak izan dira.

*Aurten, Euskaltzaindiaren urte ezteiak haintzat arturik, bigarren sari-keta berezi bat be izango da. Batez bere, gaztetxoan mailako antzerki-entzatz izango da. Antzerkiok 14-tik 16 urterakoentzat eratuak izango dira, nagusiak (gizonak) erreprezentatzeko eran eginak. Lanak bidaltzeko dagozanak, lehenbailehen bidaldu ditezala, kopia bigaz, Euskaltzaindira (Ribera, 6 - Bilbao).*

**Amabi Arrietatik**

**DANTZAK**

Beti izan da gure errietan dantzarako zaletasuna; eta bildur barik esan geinke, ez zala egongo gizon askorik, ezpata dantzea jakin ez dauanik, gurasoakandik ikasita. Baina, orain ba dakizue, gure gizartean arazo horrek ez dakar aberastasunik, gehien gehien buruko min batzuek; eta gu, dirua bitartean ez badago, ez gagoz denborea holan galtzeko prest.

Hala ta guzti be, gure errietan Quixoteren batzuek egon behar dabe nonbait; ze, joan dan Urrilaren 5-an, Gernikako Umeen Euskal Jaian, han ikusi genduzan, Izurtza, Berriz, Abadino, Elorrio ta Durangoko taldeak. Ha zan ume piloak! Uste dot, egun haretan isil eta baketsu geldituko zirala gure erriak.

Egun berean amaitu ziran Igorretako jaiak; eta eurai azkena emoteko batu ziran Elizateko talde guztiak—Goiuri, Oromino, Arriaundi ta Igorreta—, danen artean alarde bat eginaz.

**OHITURA ZAHARRAK**

Mundu guztiko erriak daukaguz ohitura batzuek, geure aurrekoakandik artuak. Ohitura honeek, itzaren nahiz idatziaren bidez eldu jakuz. Dakizuenez, gure erriak ez dau euki zaletasunik, bere gauzak idazkietan jartzeko; bai, osterak\*, abestuteko eta jaiak egiteko. Eta askenengo bide honeri eskerrak ezagutzen doguz gaur daukaguzan ohitura asko. Horretariko bat da, Elorriren Urrilaren lehenengo igandean ospatzen dan jai, "errebonbilo" izenagaz ezagutzen dana. Jai honek, uste danez, orain laurhun urte Lepantoko gudaketatik etorritako Elorriotarrak, euren erria ikustean, pozaren pozez jaurtigi zituen tiroetan dauka oinarria. Dana dala, hemen daukagu, gure egunotan, amaseigarren mende-tik\* datorren ohitura bat, oraindi-

kan indartsu bizi dana.

**JAIAK**

Urrilaren\* azkenean eta urrilaren lehenengoan ospatu doguz Igorretan Mikel deunaren jaiak, Elizateko gazte-entzatz antolatua. Oso atseginak izan dira jai honeek; eta esango neuke, ez dala ezer bere falta izan, ze bertan guztirakoak euki doguz: bertsolariak, kantariak, dantzariak, txapelpetak, eta abar. Baina uisune bat egon da, bai elizan eta bai kanpoan betetako erraza\* ez dan utsune bat: gizon baten utsunea.

Durangok be ospatu ditu bere erriko jaiak, urrilaren 11, 12, 13 ta 19-an. Jaiak, berbena bategaz emon jaken asiera; eta bertan izentatu zan, aurtengo jaietako erreginea izan dan neskatila liraina, Maria Jose Otxoa, erriko alabea. Benetan pozgarria berbena hau, ze lehenengoz aurten soinu taldeak euskeraz abestu euskuen, Ba dakigu pausurik errazenetarikoana dana, abeslariena. Baina zeredozer da, lokarturik ez geratzeko eta gure euskerea beste toki batzuetan be sartzen jarraitzeko.

Urrilaren 12-an, gure solo ta baserrietako mañari, lore, oilasko ta landaren txapelketea euki genduan Andra Marike elizpean, Bizkaiko Aurrezki Kutxeak antolatuta. Jendez gainezka egon zan, eta bertan agertu euskuezan gure eskualdeko\* baserrietarrak euren lanaren fruituak. Prezioak garesti\* samar ibili ei ziran; baina kontuan artu behar da, han egoana gure eskualdeko\* baserrietako jenerorik onena zala. Benetan txalogarria, Bizkaiko Aurrezki Kutxeak gure baserriaren alde egitzen dauan lana.

Urrungo egunean, gazteen zalaparta ta zaratea ibili zan nagusi gure kaleetan. Taldeen eguna ospatu zan; eta mila jantzi zoro ta barregarri ikusi genduzan gure gazteen soinean. Batek baino gehiagok uste izan eban, karnabalak aurreratu egin zirala.

*Joan Antonio Aroma*

**Lekeitio**

**ELIZEA DA GURE ERRIA**

"Nok arrazoia? Zeintzueri jarraitu? Zelan egoera bataz hain eritxi ezbardinak? Zegaitik batzuek isilik eta besteak dehadarka? Zer egin? Zelan jokatu, ze bide artu? Zein da Elizaren eginbehar berezia?"

Itaun\* gogorak, Xabier A. adiskideak ANAITASUNA-n jaurtigien dituanak. Baina eztabaida horretan, erria galtzaille. Horixe jazo da gure bazter honetan.

Abadeak dirala ta, erriaren eska-bidea agertu genduan. Baita itaundu be, zer ote dinoan gotzainak. Honen erantzuna etorri zan, abade gazte bat izentatuaz. Hala ta bere abade barik geratu gara.

"Elizea", "erria", berba otzak eta abstraktuak ote dira?

Lekeitioak hauxe ikusi dau: erriko arazoak, gaur egunean, ez dirala Elizapean konpontzen.

*Zorrozu*

# Europa, Frantziako maiatzetik urtebetera

Orain urtebete luze dala, 1968-ko maiatz-bagilean\*, Pariseko estudiantek politika postura bat artu ebeanean, iraultza\* mugimentu gogor eta indartsu bat sortu zan Frantzia. Mugimentu harek arriskuan jarri zituan, ez bakarrik Frantziako gobernu, baita errepublika demokratikoa eta burgesaren oinarriak bere.

Fromm, Gorz eta Marcuse-ren ideietan formatutako minoria baten bidez, estudianteen "kritikamentu" bat, burruka ideologikua bat izaten asi zana, proletalgoaren\* iraultza\* bihurtu zan laster, langile gazteak, sindikatu zahar eta elbarrituak alde batera itxita, ideologia hori euren burruka iraultzalariaren oinarritzat artu ebeanean.

"Betiko" sindikatu eta partidu iraultzalariak, parlamentuari jokoa eginaz eta euren lehenagoko elburuak\* ahaztuaz, ez eben jakin, edo ez ziran kapaz izan, gertaera barrien aurrean jartzeko eta egoan errejimenaldatzeko.

Maiatz-bagilean\* amaitu zan Frantziako ekitaldia. Europako errietan be, sortu ta il egin dira hainbat mugimentu gogor. Baina Frantziako maiatzak, Sartaldeko\* Europan kontzeptu barri bat sortarazo dau kapitalismuaren eta sozialismuaren arteko burrukan.

Kapitalistak arnasa artu dabe. Ikarea galtzen asi dira, eta konpromisuzko soluzino txiki batzuek eskaini\* ditue; esate baterako, langileak parte artu ahal daieela enpresan; oraintsukoa da oraindino, Frantziako estadiak Renault enpresako langileak emon dauan exenploa. Sozialistak indarra artu dabe, korituratu egin dira euren sendotasunaz

eta baita kontrarioaren ahuleriaz\* be, eta ondoen ezagutzen daben arlora eroan dabe burruka: langile sindikatuetara.

Aurtengo udearen asikera, langile sindikatuak, aurretiaz ezer adierazo barik, hainbat oporraldi edo huelga plazaratu ditue. Zurtz eginda gelditu dira bai enpresarioak eta bai gobernu, eta atzerantz egin beharra euki dabe, langileak integrazteko planetan. Huelga honeei, "basatiak" deitu deutsee.

Huelga basati honeek, Ingalterra, Alemania, Italia, Belgika eta Frantzia izan dira. Ingalterran Wilson behartua aurkitu da, nazino barruko politikoa aztertzeraz eta gazteen ideiak eta kontsejuak onartzera. Frantzia ez da lortu politika arloan ezer konkreturik; baina gobernu

egoera latz baten aurkitzen da bere ekonomiazko politikearen aurrean, eta beharbada aldatu edo gutxienez bigundu egin beharko dau De Gaulle asitako aunditasunezko abiadea. Alemanian Willy Brandt-en sozial demokrata partiduari gobernuan sartzen itxi deutsoe; partidu honek begi onakaz ikusten ditu Sartaldeko\* gobernuak.

Baina huelga basati honeek zabalderarik gehiena eta iraultzazko\* izpiritu baten seinalea Italian agertu dabe. Italiako langileen egoera beste Europako erriena baino laburragoa izan da, baina estuagoa. Iparraldeko industri-langileak, egoaldetik datozan lur-langileakaz gehitu egiten dira. Lur-langile honeek, formazino elemental bategaz, arin parte artzen dabe sindikatuetako lanetan, eta talde bero eta bildurgarria egiten dabe, iparraldeko anaiakaz tartean lotuta.

Italiako langilerik gehienak, komunista partiduak zuzendutako sindikatuetan sartuta dagoz. Partidu hau izango da Europako beste partidu anaien artean zabalena, bizkorrena eta errikoiena. Partidu honek aspalditik euki dau jokabide libre eta diferente bat; hortik sortu dira "Italiako posturak". Honegaz esan gura da, partidu itzartu bat dala, eta ez dogmatikua.

Minoria taldeak -"kritikatzaileak"- situazino gogorrak sortarazo ditue; sindikatuentzat itxi dabe situazino horreek kontrolatzeko eta zuzentzeko beharra, eta langileen eskabideak aurrera erroteko arazoa. Hau da, minoria taldeak labea izetu dabe; eta sindikatuak behartuak dagoz ogia egitera, baina erre barik.

Martxa hau daroe huelgak. Enpresarioak behartuta dagoz, gauzak barrero pentsatzera eta euren interesei ondoen datorkioezan neurriak artzera; baina baita langileak kontentatzera be, ekonomian ondo jarraitu gura badabe. Dana lege barruan, baina klima atezu baten. Italiako sindikatuak lege barruko jokoa egin deutsoe demokrazia burgesari, eta probetxurik onenak ateratzen ahalagintzen dira.

Gizarte mugimentu aundi honetatik, langileak soluzino onak ateratzeko itxaropena dauke, eta zuzendari politikuak langile klasearen batasun eta sendotasun aundiago bat lortuko dabela uste dabe. Hauxe dinoe Italiako sindikatuetakoak: "Erreformismua egiten diardugu bai, baina iraultzazko\* erreformismua".

IBAR

## Bertsolarien bilerea

Urtero bezala\*, ta aurten zazpi-garrenez, bertsolariak Markinan bildu\* dira. Jai honek berezko zer edo zer dauka. Apartekotasun bat, bertso giro bat. Baina oraindik ez da bere osotasunera eldu. Nahizta bilzen diranen artean anaitasun eta berotasun bat izan, beste bertsolari guztiekin alkartasunik ez dago. Zegaitik hori?

Aldizkari honetatik dei bat, derri-gorrezko ta beharrezko dei bat egin nahi deutsetorri ez diran: Uztapide, Basarri, Lasarte, Lazkao Txiki, Lizaso, Agirre, Lazkano, Lopategi, Azpillaga, Mugartegi, Muniategi ta ez dakit beste zenbateri. Dei bat, bildu\* garean bertsolari guztien izeanean.

Ez ote\* dozue nahi bertsolarien alkarerik? Edota, buru makurtze bat dala uste dozue hona etortzea?

Ba dira atxakiak, baina egun horretako konpromisuak ez dira atxakiak noski\*. Danok dakigu, jai hau, batasun hau, anaitasun hau urtero ta egun berean egiten dala. Ez dago, bada, konpromisuzko atxakiarik. Edo diruak gehiago balio ote dau holako alkar ezagutze, laguntze, osotze ta maitatze batek baino?

Jai hau berotu beharra dagoala argi ikusi genduan. Horretarako bertsolari guztien kolaborazinoa eskatzen dogu, bai etorri diranen eta ez diranena. Horregaitik bertsolarien eta bertsoaren egoera larri honetan, dei egiten deutsegu bertsolari guztiei, euren laguntasuna emon deioen jai eder honeri.

Baita Euskaltzaindiari be dei egiten deutsegu. Gaur egun kantatzen ari\* diran askok ba dauke zetan eskerrik asito emon Alfonso Irigoienari. Bere txapelketari esker, ber-

tsoa biztu ta bertsolari barriak sortu egin ziran. Gaur geroago ta erri gutxiagotan kantatzen da. Zegaitik? Ez deutsegu erriari erantzuten? Bertsoa modatik joan ote da?

Bertsolaria ezin daiteke modatik joan. Bertsolaria beti dago egunaren zain eta egun barria kantatzen. Bizi dauan eguna kantatzen. Baina geroago ta bertsolari gutxiago dator. Berotasun bat falta jako, laguntasun bat. Edo euskerearen indarbarritze honetan merituzko lekurik ez ote dauka bertsolariak? Badauka, zegaitik ilten itxi? Behetik asitako txapelketak zegaitik ez jarri? Euskaltzaindiak dauka erantzuna. Erria itxaroten dago.

Ba dago zer gehiago esanik, baina hori urrengorako.

ABEL

**Bilbo**

**JOSEBA ANDONI MUXIKA IL DA**

Urrilaren 17-an il zan, 78 urtegez, aspaldi honetan Bilbon bizi zan gipuzkoar euskaltzale sutsu Joseba Andoni Muxika. Iru aldiz argitaratu zituan, "Apellidos Vascos de Iberia" eta "El vascuence ante otros idiomas" deritxoen liburuak. Goian bego!

Ilaren 18 eta 20-an Indautxuko Karmel Elizan ospaturiko iletan, bizkaitar eta gipuzkoar euskaltzale asko batu zan.

Azken aldi honetan, bera zan EDILI euskal liburutegiko zuzendari ta banatzaile. Berak egindako idazlan irakurgarriak, oraindino argitaratu barik dagoz.

*Zeleta*

**MODESTO ARANA JOAN  
EGIN JAKU**

Modesto Arana, euskal musikalaria ospetsua, il egin da.

Andia izan zan bere lana, euskal musikearen arloan. Beste lan askoren artean, esan daigun, bera izan zala iru urtean Euskal Abesti Sari-ketako juradukoa, eta kanta askoren egilea.

Urrilaren 22an, meza bat eskaini\* zan bere arimearen alde, Bilboko Jesuiten Residentzian, gaeko 8-retain. Antolatzaileak\*: Residentziako Jesuitak (bertako organistea zan Arana jauna) ta Bilboko Korala (euren zuzendaria izan zan, orain urteak dirala).

Baina egia esan behar da. Meza hatatik triste urten genduala aitortu\* behar dogu. Han genozan gehienak, euskaldunak ginan. Modesto Arana bera be, euskalduna ta euskal musika egilea. Ba ikusi zer egin eben antolatzaileak: sermolariak, itz bat bere ez euskeraz; meza osoa erdera utsez, baita koruan abestutako kantu guztiak bere.

Zegaitik mesprezatzen gaituzue honenbeste? Zegaitik, jaunak?

*Xabier Gereño*

**Elbar**

**EIBAR KULTURA  
INMOBILIARIA, S. A.**

Uda honetan, alkarte barri bat sortu da Eibarren, izen honekin. Zetarako da? Berorren sortzaileak zabaldu eben zirkularrean bilatuko dogu horren erantzuna: "Inmobiliaria honen elburua\*, gure lehengo asmoetan agertu dan bezala, euskal kulturearen desarroiarako (ikastolak batezbera, euskera ikasguak, alfabetatzea) beharrezkoak diran lokal, terreno eta abar, erosi eta horretarako antolatzea izango da".

Alkarte honek, egin dau lehenengo erosketea. Ikastolea beste lokal baten preminan aurkitzen zan, eta

lehengo lokalen aldamenen dagoana artu da, umeak erosoago\* egon daitezana. Asteko bakarrik, miloi baten preminan aurkitzen dira; eta orainarte batu dana, ez da 300.000 pesetara ailegatzen. Batu dan kantidade hori, 90 bat pertsonaren artean batu da. Eta orain galdetzen dogu guk: ez ote dago larogetamar euskaltzale baino gehiago Eibarren? zeri begira gagoz? zeren zain? Ba gara ala ez gara? Eta ez deiskula gero inok bizkarra alztatu, dirua soltate hori aberatsei dagokioen gauzea dala ta. Bakoitzak ahal dauan neurrian emon behar dau; baina lotsa apurrik geratzen bajaku, inmobiliaria horretan inbertidu barik ez gaitzala inor geratu. "Banco de San Sebastián"-era joan, eta alkarte horrek han zabaldurik daukan kontuan ezarri daikemo dirua. Ordainez, agiri bat emongo deusue, bere bitartez eta garaia danean, akzino papera artu daizun.

**JUAN SAN MARTIN-EN  
SAIAERA BAT**

LUR editorialak, Gabriel Arestiren zuzendaritzapean, oraintsu argitaratu dauan EUSKAL ELERTI 69 izeneko antologia-liburu ederrak, Juan San Martin gure adiskideak idatzi dauan "Euskeraren inguruan" saiaera\* garrantzitsua dakar lehenengo tokian.

Industrialez, gerentez, teknikoz eta futbolistaz bakarrik arrotzen dan erri bati, bere izpiritu ahularen\* euskarri\* diran poeta eta intelektualek ipini behar jakoz eredu, exenplo. Ba, gure Juanito, poeta da, oraintsu arte Otsalar izenordepean izkutuan gorde izan dana. Poeta eta intelektuala eta langilea gutxi modukoa. Liburu honen argitaratzea dala ta, derrigorrezkoa dogu, erriaren zerbitzuan hainbeste dohako\* neke lan eta ardura artu izan eta artuko dituan gure adiskide maite Juan San Martin-en izena gorai-patzea. Hara zer dinoan LUR / HATSAPENAK / KRISLU editorialak, liburuari ezarri deutsan HITZ-ATZEAN:

"Bere poesia guztiak (orain aldizkariz aldizkari barreiatu\* daudenak) liburu bakar batean argitara ditezana egunean, euskal poematika berrian izan duen influentzia inportanteaz konturatuko gara. Beste aldetik, Euskaltzaindiaren Sekretariatzatik (hainbeste erreazio itsusiri kontra eginez) euskeraren batasunaren alde egin duen lan kementsua ez diogu inoiz behar bezala eskertuko. Baina gure iritzian, eskritore fin eta trebe honi bere kategoria merezia eman diona, hainbeste aldizkaritan agertutako bere mila eta bost saiaera\* laburrak dira, orain artean euskeraz eta euskeraaz egindako pentsamentu-lanik interesgarriena. Honen mukuru eta azken gonburutzat bere "Euskeraren inguruan" honen horrialdeak hildotu

zituen. San Martin ez da apaiza, baina gai hauetan azken hitza berea izan du".

Gure aldetik ez dogu besterik gehituko, Zorionak, Juanito! Asko gustatu jakuk "Euskeraren inguruan" hire lan eder hori. Danok irakurri behar geunke. Ea noiz eskaintzen\* deuskuan beste holako lanen bat!

**PAKORI ONGIETORRIA**

Hainbeste denboran etxetik eta bere erritik aldendua egon dan Pako Juaristi, gure adiskide elgoibartarra, etorri jaku gure artera. Ongi etorri!

**MADRILERA**

Don Felix Bergara abade eta gure laguna, Madrilera joan jaku, hango klinika baten operatu daien. Joan aurretxoan esaten euskun, datozen akontezimentuetarako prest egon beharra dagoala, bai izpirituz eta bai gorputzez. Suerte on bat izan, eta bizkor eta osasunez etorri haitela desiratzen\* deuagu.

**MATESA**

Don José María Echeverría, Eibar-ko alkatea eta Korteetan prokuradore dana, MATESA-ri emondako kreditu ofizialak aztertuko dituan Batzorde Berezikoa izendatu dabe.

**EGUNKARIETAKO OHAR BATEZ**

Ostiral\* eta larunbatean\*, urrilaren 24 eta 25-ean, egunkarietan\* Bilboko A.A.-ak argitaratu dauan oharra\*, ez jaku bapere gustatu.

**PRESUPUESTO BAT**

Hona hemen, gure ustez, euskaltzaletzat bere burua daukan batek, ze aldizkari eta liburu artu behar dituan gutxien-gutxienez:

- ANAITASUNA: 100 pta. urteko.
- ZERUKO ARGIA: 190 pta. urteko.
- LUR / HATSAPENAK / KRISLU-ko liburuak (12 liburu): 900 pta. urteko.
- JAKIN, kultura aldizkaria: 100 pta. urteko.

Beharbada, bat baino gehiago egongo dira, diru hori asko dala eta premia asko dagozala eta gauza guztietarako ez dala dirurik ailegatzen eta halako mila eta bost mila atxakia ipiniko deuskuezanak.

Baina guk esango deutsegu, erderazko periodikuetan ia-ia horrenbeste gastatzen dabela (urtero 1.147 peseta); eta guzur ontzi batzuek baino besterik ez diran erderazko periodikuetan gaztatzeo gertu\* dagoana, eta gure erriko kultureaz diarduen aldizkari eta liburuetan txakur aundi bat emoteko gertu ez dagoana, ze euskaltzale klasetakoa dan. Kontuan euki, hemen minimum bat bakarrik ipini dogula, lotsarik barik agertzeko, behar-beharrezkoa dan minimum bat. Tira ba, euskaldunak, izan gaitzean itxurearen jabel!

*S. Basauri*

## Eliza Sustraietatik barriztua

Itxi alde batera snobkeria guztiak, eta konbentzidu gaitzean, estilo barri bat sortu behar dogula, gagozan bertan itota gelditu nahi ez badogu, Gaurko Elizea ixtea ez da Elizea ukatzea; "gaurkoa" ez dala onartzen agertzea da. Eta hori ez da txarra, Kristoren Elizeari on andi bat egitea baino. Elizea barriztu nahi badogu, "gaurkoari" bere sustar guztiak kimatu behar deutsaguz. Lehengo sustarrak itxita, asiera barria emoten badeutsagu, denbora asko baino lehen, gaurko okerkerietara elduko gara barriko be. Horregaitik, hain mingarri jakuzan jokaera batzuek ez ote\* dira, behar bada, Elizearentzat mesedegarriak? Elizea itxiten dabenez ari\* naiz; itxi, barri bat eta santuago bat egiteko.

Nonnahi, esperientzia barriak egiten ari\* dira. Isilka, gutxika, Eliza ofizialaren begiratu okerraren zigorpean. Kristinau talde ezagunak eta eraginkorrak, abaderik bako kristinau taldeak. Ez ditugu hemen salatu; gehiegi maite doguz, beste oztopo bat bidean ipinteko. Frantziar, Zistertarrak daroen bide barri baten urratzea aipatuko dot hemen; ez noski\* Zistertar guztiak, talde batek baino.

Côtes-du-Nord eskualdean\*, Boquen errian, 1936-an, ordurarteko bizikereaz aspertutako fraile batzuek. Erligiosoak konturatu egin ziran, Elizearen instituzinoak eratutako bizikerea eta historiak erakutsiriko egia ez zirala bardin; bien artean

leza andi bat egoala. Zer egin? Barriztu. Zelan? Gehientsuen tentaldia izan zan, historia ahaztu eta asierako bizikerea onartu barriro sustarretik. Boquen-eko Zistertar honeek, ostera\*, bide okerra zala erixten eutsoen, beste barik, asierako bizikerea onartzeari. Beste garai barri batzuetan bizi zirala konturatu ziran, eta garai barriari dagokion bizikera barri bat sortu eta asmatu behar zala.

Gutxi dira. Baina egia biziteko, bat bakarra ez ote\* da asko? Zazpi baino ez dira, iru famili-alkarte osotuten dituelarik. Ugaritu? Tentazino utsa. Buru eta Aita bezala\* egiten dauanak honela dino: "Asieran, gure bizitzeari eldu gura eutsen guztiak artzeko asmoa, ba geunkan. Baina behingoa ikusi genduan, arrisku andiegia zala, hain aldakor ditugun garai honeetan, bizitza osorako gazte batzuek konprometidu eitezan. Zintzo jokatzera dala deritxagu inori aterik ez irigiteari. Eritxi bardina dogu abadegai eta monja bizitzez bere; askoz zintzoago jokatzera litzake, abadegaitegietako eta monjen etxeetako atek itxita eukitea, harik eta bizikera barri baten oinarriak asmatu artean".

Bitartean, zer egiten dabe? Eta etorkizunari buruz zer egin?

Inguruan, kristinau alkartasun bat sortu da, fraileekin zelanbait alkarturik. Fraileen etxea, danen etxea da. Lanean eta maitasunean alkarturik, eukaristia egiteko prest dagoz.

Etorkizunari buruz, ostera\*, beste kristinau alkarte txikien "animadore" bezala\* izan gura dabe. "Animadore" horreek, ezkonduak nahiz ezkondu bakoak, alkarrekin biziko dira. Batzuek, denborarik gehiena horretan emongo dabe; beste batzuek, gutxiago; bakoitzak bere dohaiari\* dagokionez. Batzuek, urte batzuek bakarrik; besteak, bizitza osoan; horretan bere, askatasun osoan.

Jakina, "gaurko" tradizioari jarraiturik, horrelako fraileak ez dira "monje" izango. Baina "gaurko" hori bakarrik ote da egiazkoa? Fraile bizitza mundutik iges egitea —edo munduari agur egitea— bada, orduan ez dira fraile izango. Baina esperientzia hori aurrera daroenen Aitak dinoana entzun daigun: "Beharrezkoena ez da fraile izatea, gizon izatea eta, ahal bada, kristinau izatea baino."

Asmatu edo ez, ez deusku ardura. Aurrera egin nahi izatean dago egia, eta horretan eskertzekoak ditugu fraileok. Behin betirako ahaztu daigun gure politika txarra, egapean burua izkutatu\* gura dauanaren politika. Eskatologiaren testigantzarik ezin daikete emon, "ez gizon eta ez kristinau ez diranak".

Beraz\*, urratu daiguzan gure ohi-tura eta tradizioak, eta barriztu gaitzean sustraietik, geu lehenengo; eta Elizea bere, barriztua izango da.

Markox Amundarain

## Bilboko bosgarren teologi astea

Orain asko ez dala, Bilboko V gn. Teologi Astea izan da. Gaur egun teologiak mintzatzea\*, uskeria irudituko jako askori. Zorionez, gaurko teologia eguneroko auzietara jaiten\* asia da. Aurtengo gaia guztiz interesgarria izan da: "Kristinau bizitza ta giza-konpromisua".

Itxurazko gauzea zirudian. Bertan mila ta bostehun personak aurkitu genduan alkar. Amar izketaldi, euren alkarberbeta ta guzti; honezaz gainera, 18 seminario. Ikusten dozuenez, astea ondo orniduta egon zan.

Izketaldi batzuen gaia, atsegingarria zan; adibidez, Guglio Girardin "Kristinau bizitza ta iraultzaiko\* konpromisua".

Astean zehar, alkarrizketako giroa berotzen joan zan. Galdeak\*, gero ta zorrotzagoak ziran. Jerarkiak menperatzaileekin daukan artuemoana aipatu\* zan. Hala ta bere, nahiz

ta alkarrizketetan argi berba egin,

Arrigarria izan da benetan, Bilboko V gn. Teologi Astearen mailako gertaera batek, bertoko egunkarietan\* une txiki bat ez aurkitzea. izan balitz... Eta irratia ta T.V., Futboleko Athletiaz itz egin beharra limitazinoak egon ziran, gure gaurko egoera sozio-politikuak dakazan limitazinoak, alegia\*. Esate baterako, Aita Aranak, eguneroko orri informatibuan, Carlos Camín eta Mariano Gomis aipatzen\* zituanean, espetxean egozala adierazoteko, "une txar" batean aurkitzen zirala esaten eban.

Teologi aste honek, ba, oztopo asko euki dau. Dana dala, era honetako asteak, bertan batu diranen gora-beheran dagoz. Eta hemen, kezka bat datorkit. Ez ote dira aste honek erabilten, progresista deritxoenen barne-muinak kanpora botatzeko edo euren kontzientziak naitzeko?

obeto ez aipatu! Aurten, atzerritar asko etorri zan gainera!

Itxi daiguzan gauza honeek.

Teologi aste hau, erriaren zerbitzurako izan ote da? Lehen bere esan dogu zelako oztopoekin aurkitzen dan holako aste bat. Frutuak gero ikusiko dira, batez bere, erriaren aldeko ekintza konprometidu batean.

Aste honetan aurkitu dodan akatsik audienetarikoa hauze izan da: Kristinau bizitzez eta giza-konpromisuz jardun genduanean, ez ginan oroitu, Bilboko eliz-barrutiak eta Euskalerrriak dauken problematika garratzagaz.

Andoni



## Literatura Tradizinoaz

Erdaldunen artean topiko bihurtu da, euskereak literaturarik ez daukala esatea. Euskaldunen artean, barriz, beste topiko bat aurkitu daiteke: euskereak ba daukala literatura bat. Auzia ezabateko, korapiloa askatzeko, puntu bat zuritu behar litzake lehenengo. Zer da literatura bat? Izkuntza batek, liburu batzuek izkuntza horretan izkribatu diralako, literatura bat badauka, orduan ba dauka euskereak literatura bat, dudarik bage\*. Baina nahikoa al da hori, egiazko literatura batez mintzo\* ahal izateko?

Ene ustez, literatura bat ez da liburu multzo bat. Zerbait gehiago behar da, izkuntza batek literatura bat daukala esateko. Literatureaz mintzatzeko\*, tradizino bat behar da, hau da, kate etenbako bat, gizaldiz gizaldi. Tradizino honexek finkatzen dau literatura izkuntzea eta literatura izkuntzearekin batean, izkuntzearen literatura berbera. Ez dauka, zoritxarrez, euskereak horrelakorik. Batez bere mugaz honaindiko euskalkietan.

Etxegarai jaunak ikusi eban bezala, ba dauka euskal literatureak berezitasun bitxi bat, osterantzeko izkuntzen literaturekin konparatzen badogu: euskal idazleak alkar ezagutu barik egin dabe lan, batak bestearen barririk ez ekiala. Baina puntu honetan, ba dago diferentzia andi bat mugaz honaindiko eta haraindiko euskal literaturen artean.

Urkixo jaunarekin batera, ez dot nik uste, Etxegarairen eritxia zeharo egiazkoa danik, mugaz haraindiko literatureaz mintzatzeko\* bagara: Pouvreaku agirian dauka Lizarra-

ga, Oihenarte eta Axularren influentzia eta kutsua\*; Axular, Etxeberri Ziburukoa, Materre eta Harizmendiren arteko artuemonak ondo ezagunak dira jadanik\*; eta XVIII gn. mendean\*, Etxeberri Sarakoa tradizino haren jarraitzaile bikain agertzen jaku, literatura euskerearen eredutzat Axular jartzen deuskunean. Idazle multzo honeri eta batez bere prestutasuna eta nagusitasuna euskal izkeren artean. Lafitte jaunak aitortu\* dauan bezala, lapurtarraren aldeko joerea, tendentzia agiria izan da euskal idazle on guztien artean.

Ezin geinke beste horrenbeste esan bizkaierazko eta gipuzkerazko literaturetaz, tradizino hori benetan urria baita\* gure artean. Artu daiguzan Kardaberaz, Arrue eta Mogel, eta konpara daiguzan Axular eta Etxeberri biakaz.

Baina lapurtar klasikoen tradizino apurtu egin zan XIX gn. mendean\*, eta batez bere mende honetan, nafar lapurtar dalakoaren bitartez. Honen ondorioz, errikeriaz eta txokokeriaz kutsatu da; eta gure literatura izkuntzea, formatzen ari zana, ahulduz\* joan da, gaur egunean mostrotzen dauan egoeraraino jaitsiaz\*.

Gure mendeko euskal idazleen eginbeharririk beharrezkoena, galdu dogun tradizino hareri jarraitzea da. Hortixek etorriko da euskera idatziaren batasuna. Hortixek bakarrik, Errikoitasun faltsu baten espejismoak liluratzen bagaitu, barriz, ez dogu urte batzuen buruan ezer batu beharrik izango.

Ibon Sarasola

## Kurso Barria

Udaldi bero ta gozoa igaro ondoren, ikasleak —txiki ta nagusiak— barriri asi gara eskoletara joaten, galtzarbean\* liburuak, paperak eta boligrafua ditugua.

Aurretiaz, gutariko batzuek irailako\* esaminak egin ditugu, udan ikasitako apurrari suberte on batek lagundu deiola desiratuaz\*. Kurso barria, ba, asi da: bederatzi ilabete luze ta astun gure aurrean; baina baita itxaropenak be, lanaren laguntasunaz, gure ahaleginak errelidate bihurtuko dirala uste dogu ta.

Egunotan gure arteko gazte askok ta askok erbestetara urten dabe, ikasketak egitera. Euskalerrri aberats honetan (?) ez dago, edozein ikaskintza aukeratzeko\* erarik. Madriler, Zaragozara, Salamancara-ta joan behar, zientzia bila.

Euskalerrriak —askoren ustez eta antza danez hain aberatsak— ez dauka Unibersidaderik. Hemen gazteak ez dauke, euren bokazinoari jarraituaz, gura leukeen ikaskintzea egiterik. (Estaduaeren eskolei buruz bakarrik ari\* gara).

Goi mailako irakaskintzea bakarrik aztertzen badogu, urteetako ariari jarraituaz, hauxe ikusten da: Lehendik daukagu Ingenuru Eskola bat, gure industrigintzeak eukan premineagaitik egin. Gero, Ekonomiazko Eskolea eregi\* da. Gauzak honetara izan doguz oraintsu artean. Azkeneko urteotan, hainbat mintzatu\* da eguneroko izparringietan, Bilboko Unibersidadeari buruz. Berba asko entzun dogu, Unibersidadea Bizkaiarentzat behar-beharrezkoa dala ta. Baina berba guzti horreek, igaz zabalduko "Facultad de Ciencias" en gelditu dira. Argi ikusten danez, daukagun guztia teknika alderdikoa da. Irakaskintza sailean gure errian gauzak honetara egotea, ezin geinke esan kasualidade bat danik; industriak ondo jarraitzea gura bazan, eskola horreek lortzea eginbeharrezkoa zan. Honetan, gure industri jabeak buru onez jokatu dabe.

Baina problema garratz bat sortu da era berean. Gure gazte diak gehienbat, bokazino bat baino ezin dau aukeratu\* (teknika alderdikoa), erbesteetara nahiz Deustuko Jesuete-tara joatea garestiegi\* baita\* jendearentzat. Teknika alderdiko ikaskintza horreek erriaren aurrerakuntzarako arduragarriak dira; baina ez nahiko, erritasun oso baten aurrerakuntzarako.

Beste alde batetik, beste ikaskintza batzuek gure errian, eta batez bere Bilbon, ez dagozan ezker, erbesteetatik etorri dira gure artera horretarako preparatuta dagozan irakasleak. Esaterako, lege gizon, midiku, kazetari, eta abar. Gizon honeei errespetu ta eskerrona emoten deutsegu; baina ez egoan gauzak horretara egin beharrik, aurretiaz beste era batera antolatu\* balira.



Kantari Barria: ANA TERE, Bermeotarra

Azkenez, industri jabeentzat eraturako teknika eskolak, sobra antzera dagoz. Erraz\* ikusten da, gure teknika eskoletatik urtetan daben gazteak ezin dabela tokatzen jaken ofiziorik aukeratu ta bertan jokatu. Gure industriak ez dauka behar aina indar, gure gazte horreek bere kantuan lotu ta enplegatze. Ta horregaitik, gure gazte asko erbesteetara doaz lan bila.

Hori holan dalarik, ta ondorio legez, ikusten dogu gure erriko industria moteldu egin dala zeharo, ez dala eraberritu, ta erria, aurrerantza barik, atzerantza doala, zoritxarrez. Gure industri jabeak une honetan euren diruak hemen erabilirik, ekonomia modernu batera jotzen ez badabe, laster batean Euskalerrria erri pobre bat, erri atzeratu bat izango da.

Jon Otargi

## EUSKALDUNENTZAT BAKARRIK

Euskaldun zarean horri, arren eskatzen deutsugu, orritxo hau irakurri daizula. Ez da bapere luze, ta behar-bada euskerearentzat onuragarri\* izan daiteke.

Euskal kezka, euskal kulturearen kezka daukagu, zeuk bezala\*; ta zelanbait aurrerakada bat emon guraz, zuregana jotzen dogu, alkarrekin joanaz zerbait lortuko dogulakoan.

Mila bider entzun arren, ez gatoz bat batzuek dinoenagaz, alegia\*, euskal idazlerik ez dagoala, euskal irakurlerik ez dagoala. "Nik ez dot irakurten —dinoe askok— ganorazko ezertxo bere ez baita\* aurkitzen euskeraz", edo "nik ez daukat idazteko zaletasunik, irakurlerik ez dago ta".

Gauzak honela dirala, ez dogu inoiz aurrera egingo. Goazan, beraz\*, soluzino bat emotera. Hona hemen gure asmoak:

- 1) Irakurle Sail bat batu; eta idazle ta argitaldariei bultz egin, irakurleen eskuetara zernahi idazki eldu daiten.
- 2) Argitaratu ta zabalduko diran lan guztiak, EUSKERAZ BAKARRIK izango dira.
- 3) Liburu bakoitza argitaratzean, ondo gogoan eukiko dogu gure kulturearen alde lan egitea; burruka horretara lotuko gara.
- 4) Liburu honeek "txukun" argitaratuko dira, baina "lujoari" leku emon barik. Praktikoak izan daitezcan saiatuko gara, ta ez liburutegietako apaingarri bakarrik.
- 5) Irakurle talde hau osotuz, liburuekin sortzen dan kexa bat baztertuko dogu: liburuaren garestitasuna. Ziur egon zaitezte, preziorik onenean eskuratuko dozuezala.

- 6) Aurretiaz ez da inoiz zentimurik kobratuko, liburuak eskuratuta gero baino.
- 7) Iraunbide bat eukiteko, Irakurle Saila osotuten dabenak prest egongo dira, ilero 60 pesetaren barruan sartuko diran liburuak jasoteko. Honek ez dau esan gura, liburu guztiei, txiki edo aundi, prezio bardina emongo jakenik, ilean ez dala gehiago ordaindu behar izango baino.
- 8) Egin nahi dogun Irakurle Sail hau osotuteko, gutxienez behar diran beste lagunek (salneurria egokia izan dadin) euren izena emoten ez badabe, baiezkoa emon daben jaun guztiei, eskutitz baten bidez, gertatuaren barri emongo jake.
- 9) Behar aina jende batzen bada, udazkenean ekingo litzakio liburu zabaltzeari.

Irakurle Sail hau egiteari onurakorra dala baderitxazu, zure ingurukoiei jakin erazo eioezu, ta euren izen ta zuzenbideak bidaldu daitezala.

Mila Esker

Izen ta abizenak .....

Kalea .....

Uria .....

Txartel hau bidaldu zuzenbide honetara:

**IÑAKI BEOBIDE - Iparagirre, 20  
SAN SEBASTIAN**

## DURANGO

### Euskal Liburu ta Diskoen Laugarren Azokea

#### Lau Diputazioak, lau stand barri ta aundi

Azilaren\* batean, Domusantu egunean, goizeko 10-etan asi zan Euskal Liburu ta Diskoen Azoka\* hau, Durangoko alkate ta diputadu dan Amorrortu jauna, J. R. Urkixo, Jesus Oleaga eta Gerediagako Batzordea presente zirala. Denbora onari esker ta euskal jendearen goseagaitik, lagun asko ta asko ibili da.

Azoka\* honetan ogetazortzi editorial etxek parte artu dabe, guztira 870 liburu eta 136 disko ezbardin presentatuaz. Ogetazortzi editorial horreentzat, 24 stand polit egon dira. Lau Diputazioak lau stand barri, besteak baino aundiagoak, izan dabez.

Azoka honeri oso interes aundia emon deutsona, bertan estreinatu diran liburu barriak izan dira: guztira ogei bat, eurotatik iru euskera utsean.

Azoka izan dan egun bietan, liburuak 5.000-tik gora, eta diskoak 1.000-tik gora saldu dira. Bigarren egunean, lehenengo egunean baino gehiago. Salketa hori nahikoa da, azoka honen garrantzia ikusteko.

Euskerazko liburuentzat bat, eta erderazkoentzat beste bat, sari bi egon dira. Epaimahaikoak ez dabe oraindino erabagi zeintzuk izan diran saria irabazi daben liburuak. Dirurik ez da emoten, baina sari hori oso estimagarria da.

Aurtengoz liburuentzat bakarrik izan arren, uste da urrengo urtean diskoentzat be beste sari bat egongo dala. Halan izan dadila.

Tarteka, eta guztien alaitasuna beteagoa izan eiten, "Bozkari", Natxo eta "Txori Alai" kantariak egon ziran. Martitegi ta Alberdi, bertsolariak. "Durangoko Itsua", Eusebio Bilbao, soinularia. Igorretarrak, Goiuritarrak eta Durangoko "Txoritxu Alai", dantzariak.

Azoka hau eratzeak, 200 mila bat pesetaren prezioa dauka. Zorrik ez da inondik bere partitzen; baina, urrengo urtean, ez ote\* dogu erarik izango, zorrak garbitzeko? Jainkoak hala nahi daiala.

Ibilten dan jendeagaitik, editorialak agertzen daben interesagaitik eta bertan egiten dan salketeagaitik, azoka hau euskal kulturearentzat guztiz interesgarria dala ikusten da. Orduan, zegaitik ez egin holakoak Donostian, Iruñan, eta abar, eta abar tokitan, gauero inoiz beteko ez diran ametsetak egin beharrean?

Julian eta Angel Zelaieta

## Lege sindikal barria

"Ley Orgánica"-ren atzetik, Lege Sindikal Barria ei da Espainiako errejimenaren ekintzarik garrantzitsuena. Ekonomia ta politika internazionalari jarraituaz, aipatutako\* ekintza biok, Ley de Prensa-gaz batera, osotuten eben demokratizazio bidea. Lege honeen azterketeak eta euren erabilte moduak esango eben, benetako ala guzurrezko demokratizazio baten aurrean gengoanentz.

Lege Sindikal hau eratuteko, Tarragonan batu ziran, inkesta\* bat egin ondoren, sindikalismuaren hainbat ordezkari, gehienak Mugimentukoak. Lege honen oinarriak jartzeko, konklusino batzuek atera ziran.

Asiera ona ez eban izan barriztatze honek. Espainiako gotzainak, Elizan aurreratuenak izan ezarren, ez zituen konklusino honek kristinatu jokabide jator baten barruan onartu. Elizarean dotrina soziala eta Tarragonan alkartutakoena ez ziran bardinak.

Handik urte betera osotu da Korteetara eragan dan textua; eta han guztiz arrituta geratu dira, balio andiko zerbaiz izango zala uste ebanak.

Isilune bat igaro ondoren, gero ta komentario gehiago agertzen asi dira eguneroko kazeta\* guztietan. La Gaceta del Norte-n bertan irakurri genduan, Solis bera be ez egoala ados\* egin danagaz.

Iruñako sindikatuetan dimisino pilo bat izan da, lege barri horrer euren ezetza agertu nahiez. Beste leku askotan (Bilbo, Sevilla, eta abar) kritika garrantzak egin jakoz lege barriari, demokratizazioa dala ta ezerala, aukeratutako puestuak dirala ta ezterala, langileen interesak defenditzen ez dirala, ta abar.

S. P. asterokoan, Garrigues-egaz alkarrizketa bat agertu zan, orain asko ez dala. Gizon honek, kapitalista liberal batek lez agertu eban bere burua; eta Espainiako situazioa ikutu zanean, bere eritxiak honeexek ziran:

"Espainiako kapitalismua feudal giro batetik urten barrik dago, eta aurrerakuntzeak beste giro bat eskatzen dau. Huelgarako eskubidea beharrezkoa da, eta horregaz batera lantegitik kanpora edozein langile bidaltzeakoa be bai".

Lege barrian, elezinozko karguak ez dira goiko mailetaraino alitzen, sindikatuaren ekintzetan muga asko ikusten dira, huelga arloa lehengo lez geratu da, eta, beste gauza askori begiratu barik, langileak lehen bezala\* geldituko ote diran bildur gara.

Baina beharbada, arrigarriagoa izango da batzuentzat, kapitalistak eurak be konforme ez egotea. Eta hau honan dala argi dago. Garrigues kapitalistea dana bistan dago; legeari atxakiak ateratzen asi diran egunkariak\* kapitalisten eskuetan dagoz; Tarragona prokuradore, industrial aundi bat da.

Kapitalisten artean be, taldeak ote dagoz? Batak bestea iruntsi nahian ote dabiltz? Zerbaiz ba dago. Monopolioren jabe diranak —eskuko atzamarrakaz konta leitekezanak— euren ondasunei bakarrik begiraturik, ez dauke aurrerakuntzen beharrianik. Monopoliora eldu ez diranak, barriz, aurrerakuntzearen atxakiaz, monopoliodunen aurka jokatzeo edo eurakandik defenditzeko, hor dabilta, langileentzako obakuntza batzuek eskatzen.

Eta langile gizaixoak zer eskatzen daben inok jakin ez.

ANTON

## Esperientzia bat

Larunbat\* arratsaldea da.

Bost t'erdietan, aurretiaz esan genduan legez Deustuko San Pedro plazan bost lagun alkartu gara: lau estudiante ta neu. Gure artean, gipuzkoarrak, nafarrak eta bizkaitarrak, baina guztiok euskaldunak.

Automobila artuta, Indautxuko seiretako mezatarra joan ginan. Hara eldutakoan, ANAITASUNA aldizkari honen ale batzuek besapean artu, arpidedun barriak egiteko talonario bat, eta boligrafoa.

Elizatarian, jendearen zain jarri ginan.

Asi zan jendea etorten, eta ANAITASUNA-ra arpidetuteko eskatzen geuntsen. Banaka batzuek, euren izenak eskaintzen\* euskuezan. Beste batzuek, lehendik arpidetuta egozala esan euskuen. Beste askok, ez ekiela irakurteko beste euskeraz.

Mezatatik urtekeran, lan bardina; eta jendea joan zanean, errekontua egin genduan: 12 suskritore barri.

Gero, automobila artu, ta Iralabarriko frantziskanoren euskal mezatarra. Han, 8 arpidedun barri.

Gauean, ilun zalarik, Zurbaraneko sakramentinoen euskal mezatarra. Arpidedun barriak, 9.

Gaueko bederatzirik ziran, barriro Deustura eldu ginanean; eta ikusi zeintzuk izan ziran esperientzia honen ondorenak: 29 arpidedun barri ta 17 ordu lanean (5 lagun, bakoitzak 3,5 ordu).

Urrengo egunean, igandean\*, Deustuko San Pedro elizan eta San Antonekoan ibili ginan. Lehenengoan 14 arpidedun barri, ta bigarreanean 29.

\* \* \*

Eta ANAITASUNA-ren zabalkundeari jarraiturik, beste esperientzia bat egin dogu Deustun: etxerik etxe, euskaldun familia guztiakana joaten asi, arpidedunak egiteko asmotan.

Lehenengo aprobadea egiteko, amabi atetan jo dot; eta familia guztiak, amabiak, arpidedun egin dira (ordu t'erdiko lana).

Sarri askotan ibiltzen gara lamentazio utsetan: euskeren gaitzen doala ta horrelakoak esaten. Baina hemen irakurri dozuen legez, zeuek be zeredozer egin zeinke euskerearen alde.

Nik ez zaitut ezagutzen, irakurle. Ez dakit nongoa zanean, ezta nor zanean bere (andra ala gion, zahar ala gazte). Baina euskerearen alde ezer egin nahi badoza, egizu, zeuk bakarrik nahiz beste batzuekaz taldean, guk hener Deustun egin doguna: euskaldunakana joan eta ANAITASUNA artzeko eskatu. Ehun pesetako suskizinoan ordaindu ezker, amabostero elduko jake aldizkaria, gai interesgarriak dakazana, erraz\* ulertzekoa, bizkaieraz eta euskerearen batasunari begira idatzitakoa.

Gure elburuak\* izan behar dau, ANAITASUNA euskaldun familia guztietan sartu dadila. Bizkaian, 50.000 arpidedun gutxienez lortu behar doguz. Ez doguz behar betikoak, euskera arloan lehendik arduratzen diranak. Besteak behar doguz, euskaldun epelak, otzak, euren euskerearen aldeko zaletasuna sortu edo indartu daiten.

Epelak eta otzak batzeko, eurakana joan behar dogu, etxerik etxe. Eurak ez jakuz berez etorriko.

Asi zaitetz gaur bertan lanean, irakurle. Egin zaitetz ANAITASUNA-ren zabaltzailea, propagandistea. Zoaz ezagutzen dozuan euskaldunakana, batez bere otzak edo epelak diranakana, ta eskatu eioezuz izen-abizenak eta zuzenbidea, ta gero ANAITASUNA-ra bidaldu (Bengoetxe, 33 B, Galdakano). Esan eioezu ez dabela aurretik ezer pagatu behar (erranboltsoz, hau da, karteroak kobratuko deitsez urtean 100 peseta), ta errebista on bat artuko dabela.


Guztiok lanean asten bagara, Gabonetarako 5.000 arpidedun eukitera eldu geintekoz, eta gure ANAITASUNA hau koloretan argitaratu ahal izango geunke.

Ea ba, zelan lan egiten dozuen.

Xabier Gereño



# Euskalerriko mapea



Tolostuta: 50 peseta  
Tolostu barik: 60 peseta



Egilea: **CINSA.** Av. Ejercito, 18 3.º B



# LUR EDITORIALA

Sortu da azkenean be zuk itxaroten zenduan editorial etxe gaztea. Gaur egunean Euskalerrian diran eskritorerik bixkorrenak eta jakintsuenak egindaKo liburu barriak.

Txillardegiren, Elsa Schelen. 50 peseta.

Askoren arte, "Euskal Elerti - 96", 100 peseta.

**Rikardo Arregiren**, Politikaren Atarian. (Agertzeaz batera agortua, ta barrero imprentatzera bidaldua) 50 peseta.

Argitasun gehiagorako deitu: **Lur Editoriala**

Apartado 755

SAN SEBASTIAN

## FUNCOR S. C. I.

Gaurko baserritarrak bear dituan  
MAKINAK  
Trituradora — Errota  
Naastale-Zerra - Uraga - Uraska  
Europako aurrerapenik onenak, emengo baserriarrentzat  
Adi ta gomuta FUNCOR  
ELORRIO (TEL. 114)



IMPRENTA IDEAL

al servicio

de sus mejores impresos

bengoeche - galdácano

## Margo Ederdun Enziklopedia

Amabost liburu eder, erarik errax ta egokienetan euskaldun neska mutil guztiak, euskeraren bidez, ludiko kultura guztiaz jabetu daitezana.

Orain artean 10 liburu dira agertuak eta gainerakoak ilean ilean joango dira agertzen.

**Txartel hau bete ta bidaldu guregana. Berehala jasoko dozu gure liburu bat barritasunak emonaz.**

Izen ta abizenak .....

Zuzenbidea .....

Erris .....

Gure zuzenbidea: Aldamar 34

**DONOSTIA**

(Ale honetan izartxu bategaz agertzen diranak)

## BIZKAIERAZKOAK

AUKERATU, hautatu, elejidu.  
 AZOKA, merkatu, feria.  
 BAGE, бага, барик.  
 BAGIL, junio  
 DOHAKO, gratuito.  
 EREGI, jaso, eraiki.  
 EROSO, cómodo.  
 EUSKARRI, eutsigarri, apoyo, agarradero.  
 GERTU, prest.  
 IRAIL, septiembre.  
 IRAULTZA, erreboluzino. (Berba barria).  
 ITAUN, galde, pregunta.  
 LOBEDAR, lo eragiteko bedar, adormidera.  
 OLA, fabrika.  
 ONURAGARRI, probetxugarri.  
 OSTERA, barriz.  
 SARTALDE, eguzkia sartzen dan alde, Oeste.  
 SORTALDE, eguzkia sortzen dan alde, Este.  
 URIGINTZA, urbanizazio.

## EUSKERA BATERATUKOAK

AHUL, makal, débil.  
 AHULDU, makaldu.  
 AHULERIA, makaltasun.  
 AIPATU, aitatu.  
 AITORTU, autortu.  
 ALEGIA, hau da, a saber.  
 ANTOLATU, eratu, atondu, organizatu.  
 ARI IZAN, jardun.  
 BAITA, bait da, da ta.  
 BAITIRA, bait dira, dira ta.  
 BAITZIRAN, bait ziran, ziran eta.  
 BARREIATU, dispersar, desparramar.  
 BERAZ, hori dala ta, horregaitik, por consiguiente.  
 BEZALA, legez, lez.  
 BILDU, batu.  
 DESIRATU, desiatu.  
 DOHAI, dohe, don, carisma.

ERRAZ, errez.  
 ESKAINI, eskini, eskeini, ofrezidu.  
 GARESTI, karu.  
 HAUTATU, aukeratu, elejidu.  
 HELBURU, fin, objetivo.  
 IFERNU, inpernu, infernu.  
 IGANDE, domeka.  
 IZKUTATU, ezkutatu.  
 JAITSI, jatsi, bajatu.  
 KOLPE, golpe.  
 KUTSU, contagio, resabio, deju.  
 LARUNBAT, zapatu.  
 LILURATU, fascinar, deslumbrar, seducir.  
 MENDE, gizaldi, sekulu.  
 MEZU, mandatu, mensaje.  
 MINTZATU, berba egin, mitzo izan.  
 MOTA, mueta, klase.  
 NOSKI, ciertamente.  
 OHAR, nota, advertencia.  
 OSTIRAL, bariku.  
 OTE, efe.  
 XEHETASUN, detalle, circunstancia, pormenor.

## BESTE EUSKALKIETAKOAK

ADOS, akort, konforme.  
 ARRAS, guztiz, zeharo.  
 ASTEKARI, asteroko periodiku.  
 AZIL, noviembre.  
 EGUNKARI, eguneroko periodiku.  
 ESKUALDE, comarca.  
 GALDE, itaun, pregunta.  
 GERTU, urre.  
 INKESTA, encuesta.  
 JADANIK, erderazko ya.  
 KAZETA, periodiku.  
 MINTZO IZAN, mintzatu, berba egin, itz egin.  
 OIHARTZUN, eco.  
 PROLETALGO, proletarioen gizartea.  
 SAIARA, ensayo.  
 ZUZPERTU, berbiztu, revivir.

## II.—IDAZTEKO MODUA

### TXARTO:

Ez dakit zer zarean, andra edo gizon, zahar edo gazte.  
 Gara edo ez gara?  
 Lege honen azterketeak esango dau, benetako edo guzurrezko demokratizazio baten aurrean gagozan edo ez.  
 Abade batzuek kalte aundia egin deutsoe euskereari eskualde honetan, asi Arrigorriagan eta Usansolorarte.  
 Maiatzaren zazpitik bederatziraino.  
 Animadore horreek, ezkonduak edo ezkondu bakoak, alkarrekin bizi dira.  
 Egizu zuek bakarrik edo beste batzuek.  
 Ohitura horreek eldu jakuz itzaren edo idatziaren bidez.  
 Hau ondo baderitxazu, bidaldu eiguzuz zure izena ta zuzenbidea.  
 Begoña Abaitua, 28 urtedun neskatila lirain bat dogu.  
 Ikusteko zelako aurrerakadea egin daben Basaurik, jakin daigun, 1860 gn. urtean, 831 bizilagun bakarrik zituala.  
 Kristiñau bizitzeaz eta giza-konpromisuaz jardun genduan izketan, ez ginan oroitu Euskalerriko problematika garratzaz.  
 Indautxuko seiretako mezara joan ginan.  
 Hara hor kantantearen lan bat.  
 Zelako semè momorroa!

### ONDO:

Ez dakit zer zarean, andra ala gizon, zahar ala gazte.  
 Ba gara ala ez gara?  
 Lege honen azterketeak esango dau, benetako ala guzurrezko demokratizazio baten aurrean gagozanentz (gagozan ala ez).  
 Abade batzuek kalte aundia egin deutsoe euskereari eskualde honetan, asi Arrigorriagan eta Usansoloraino.  
 Maiatzaren zazpitik bederatzirarte.  
 Animadore horreek, ezkonduak nahiz ezkondu bakoak, alkarrekin bizi dira.  
 Egizu zuek bakarrik nahiz beste batzuek.  
 Ohitura horreek itzaren nahiz idatziaren bidez eldu jakuz.  
 Honeri ondo baderitxazu, bidaldu eiguzuz zure izena ta zuzenbidea.  
 Begoña Abaitua, 28 urteko neskatila lirain bat dogu.  
 Basaurik zelako aurrerakadea egin dauan ikusteko, jakin daigun 1860 gn. urtean, 831 bizilagun bakarrik zituala.  
 Kristiñau bizitzeaz eta giza-konpromisuaz izketan jardun genduanean, ez ginan oroitu Euskalerriko problematika garratzaz.  
 Indautxuko seiretako mezatarra joan ginan.  
 Horra hor kantantearen lan bat.  
 Hau bai seme momorroa!

# ONGARRI Pentzuak

## SARB - en ardurapean eratuak

Pentzatu ondo ta pentsutu ondo zure ganadua  
 Burubako egina, alperreko ekina.  
 ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.  
 ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

Egazti, txarri, koneju, txal gazte, esne-bei, aragitako txal...  
 danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Baita txal txikientzako ALIVO esne autsa be...

**Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:**

# ONGARRI, S. A.

## piensos compuestos

**ANAITASUNA-** amabosteroKoa, 5  
 Euskalerriko Anaia Txikarrak argitaratua, Durangon.  
 Zuzendaria: Angel Celayeta Guisasaola.  
 Idazkola ta Banakola: Bengoetxe 33-B Galdakano Tel. 396 eta 397

Banakakoa, 4 peseta, Urtekoa 100 XVII gn. urtea. 176 zanh.  
 1.969 azaroak 15  
**D. L. Bi. 1.753-1.967.**  
**IMPRESA IDEAL-ek Irarria, GALDAKANO, Bengoetxe 70**

## II. Urbi Inguruko Erriak

Bilboko sarreran ibai bik, Ibaizabal eta Nerbionek, bat egiten dabe Urbi deitzen jakon tokian. Bere inguruan bost erri daukaguz, Bilbo Aundiko eskualdekoak\*: Arrigorriaga, Basauri, Zaratamo, Galdakano ta Etxebarri. Izen kolektibu bat aukeratzean\*, ibai bien alkartzetokia autatu\* dogu: Urbi.

Eskualde hau olaz\*, fabrikaz, josia dogu. Bost errietan daukaguz mota\* askotako olak: laminazino, txapa, sukalde, edari, lejia, goma, plastikua, eta abar. Somorrostro alde industria gehiagokoa baldin bada, hau desbardiintasun ugarriagoduna da. Lehen ortu ederrak ziranak, orain kez beteta dagoz. Askotan jazoten dana hauxe: orturako tokirik onenak olaz\* beterik; baina kasu honetan, Bilbo ondoan euki-zeak bere baldintzak ditu, ta bat industria ezartzea.

69,09 km.<sup>2</sup> ta 62.925 bizilagun ditu eskualde\* honek, azkenengo kontaketeak dinoskunez (1965). Urbi eskualdeak nabarmenen agertzen dauana, urigintzarik\* eza da; ta orain plan bat eginda egon arren —Bilbo Aundiaren Urigintza Plana—, zuzenketa hori berandu egin ta eskasa da, industriako jauntxoek azpikeriak euren burpila emon deutsoe ta.

Ibai biak bat egiten badabe, iru bide nagusiak bere bat egiten dabe: Irubide-n Orduñatik Gaztelarantz doanak; ta Urgoitiko Oilarraren ondoan, Donostiara ta Gazteizerakoak. Bide-gurutze biok indar aundia emongo deutsoe eskualde honeri; ta laster Bilbo-Behobiako autobide nagusiak bere bai, bertan —Basaurin— asten dalako batetik, eta lehengo bide sarrerea Urgoitiko Oilarrean izango daualako bestetik.

Euskereak atzerakada aundia egin dau eskualde\* honetan. Kanpotar uiol aundi bat sartu dalako? Nik uste, horrez gainera, bertako jendeak, batez bere euskaltzaleak, izkuntza kontzientzia motela edo okerra izan dabelako; eta euskerearen folklore eritxi bat izateak bere, berea egin daualako. Ba diardu euskeraz ikasten ume ta nagusi mordoxka batek, eta horrek berea egingo dau. Ezin dogu aipatu barik itxi, elizgizon batzuek zelako kaltea egin deutsoen gure izkuntzeari, asi Arrigorriagan eta Usansoloraino. Euren errua bere ez da makala.

Eskualde honen mendi nagusi biak, Ganguren iparretik eta Upo egoaldetik dira.

### ARRIGORRIAGA

16,36 km.<sup>2</sup> ta 8.495 bizilagun. Bere auzoak, erriburuaz gainera: Agirre, Larrasko, Martiartu, Ollargan eta Arraizpe (La Peña). Bere barrutiak burdin-meatze\* bat dauka, Montefuerte izenekoak. Horrez gainera, lantegi batzuek be ba ditu, nahiz eta beste erriak beste ez. Kondairegile batzuek dinoskunez, 870 gn. urtean bizkaitarrak —Jaun Zuria buru ebela, ta Santxo Estigiz, Durangoko Jaunak lagundurik— Leondarrei irabazi eutsen, Padura eritxon tokian, gudaketa odoltsu baten. Arriak bere gorritu egin ei ziran ta hortik ei dator Arrigorriaga izena.

### Lekeitio

#### IKASTOLAK

Lekeitiok ba daki erantzuten, benetako problemak agertzen jakozanean. Zarata barik, baina gogoz, alkartu dira umeen gurasoak; eta batzorde bat aukeratuaz\*, eurakandu egin dabez ikastolen eta andereñoen ardurak.

Urrilaren 13-an, San Fausto egunean izan dogu Durangon erriko dantza askatuen lehenengo txapelketea. Bertan agertu ziran 10 bikote: 7 errikoak eta 3 kanpokoak (azkenengo honeek txapelketatik kanpora). Lehenengo saria irabazi eben Miren Zamakonak eta Pedro Ugarriri-

zak; eta bigarrena, Pili Sarrionandiak eta Nikolas Alberdik. Zorionak!

#### GIZARTE ETXEA

Gure Gizarte Etxeak erriarren alde gutxi egin daualakoan gagoz, danon laguntasunagaz egin izanarren. Eta gainera, handik edo hemendik, galtze aundiak. Lehen, toki asko ezetarako aprobetxatu barik: diru itugin makala! Orain, barra subastan ipini da. Danetariko barriketak kalean. Teila bat aldatu, teilatu osoa barrizatu behar dan tokian!

#### Italiar ingeneruak

Cerdeña-tik etorrita, zortzi ingeneru jaitsi\* dira oraintsu Sondi-

Erri honetako semea dogu, orain ehun urte, 1.869-an, Zarautzen il zan Aita Jose Antonio Uriarte, frantziskotar euskaltzale jakituna. Bonaparte Printzearen laguntzailerik onenatarikoa, eliz-liburu eder ugari egin zituan, batez bere Bibliaren zati aundi bat gipuzkeraz. Olerkaria bere izan zan. Gure izkuntzearen alde hainbeste lan egindakoa, tantai baten antzekoa agertzen jaku euskera arloan, bere garaian; benetan merezi dau bere erriarrak gomutatzea bere ehunurteburuan. Gizon prestuekin gogoratzea gizonena baita\*, arrigorriagatarrak, erri gizontasuna guztiz galduta ez badauke, gomutatu beitez aurten euren erriar ospetsu Jose Antonio Uriartegaz.

### BASAURI

7,16 km.<sup>2</sup> ta 33.432 bizilagun. Arizgoiti (erriburua), Bidebieta, Urbi, Elexalde dira bere auzoak. Ze gorakada aundia egin dauan ikusteko, jakin daigun, 1860 gn. urtean, 831 bizilagun bakarrik zituala. Industria aundiko erria, Euskalerrian ugarietarikoa: Basconia, Firestone, Edesa, Ceplástica ta beste asko. Bertan diardue egiten Merca-bilbao izeneko Bilboren azoka\* barria; gure errietako baserri gauzak hara joan beharko dabe, inoren eskuetan ixteko gure baserriarrak alkartzeten ez badira. Bertan ezingo dabe zuzenean erriari saldu. Gure izkuntza ia arras\* galduta, gazte batzuen artean zuzperten\* asia dala esan leiteke.

### ZARATAMO

9,99 km.<sup>2</sup> ta 2.132 bizilagun. Erriburuaz gainera, Arkotxa, Burbustu-Altamira, Gutziolo ta Mayordin-Barrondo dira bere auzoak. Orain 130 urte inguru Basauri ta biok askatu ta aldendu egin ziran Arrigorriagatik. Zaratamo, eskualde honetako errietatik baserriarrena da; ba dauka auzo bat, Arkotxa, ola\* ugariduna. Bertan bizi da beste auzo guztiak batuta baino jende gehiago.

### GALDAKANO

32,20 km.<sup>2</sup> ta 14.535 bizilagun. Bere auzoak, erriburuaz gainera: Agirre, Arteta-Bekoa, Bengoetxe, Aperribai, Elexalde, Gumuzio (Erletxes txarto deitua), Urgoiti, Usansolo ta Zuatzu. Eskualdeko erririk zabalena, urigintza\* aldrebes batgaitik erri itxura ta batasun gutxiakoa. Balio aundikoa, Andra Mari eliza zaharra, Bizkaian antzinako lehenena.

Ekonomia nagusia industria izan arren, oraindik baserri mordo ederra dauka Galdakanok.

### ETXEBARRI

3,38 km.<sup>2</sup> ta 4.331 bizilagun. Erriburuaz gainera, Legizamon eta San Antonio dira bere auzoak. Bilbotik erririk gertuena\*. Industri erria izan arren. —Laminación en Bandas\*, Basconia ta Altos Hornos de Vizcaya-rena, bertan dago— erri inguruko urigintzea egoki samar eratu dau Etxebarrik, ta bide nagusiaren alboak polito apaindu.

J. L. Lizundia

kako avioi zelaiean, Hemengo pinudiak ikusteko eta zer edo zer ikasteko gogotan etorri dira. Dinoenez, Italia aldean ez dauke pinudirik asko; ta preminazkoak dabez, batez be papera egiteko.

Bizkaian, Don Mario Adam de Yarza-k ipini eban lehenengo (1860 gn. urtean) "insignis" pinu klasea, Lekeitioko Zubietan, Californiatik landare\* barri hori ekarrita. Harrezkero Bizkaia ta Euskalerrri osoa pinuz bete da, baso arbola aberatsa dala ikusirik.

Zorrozuza